

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN, BERRIKUNTZAREN ETA DEMOGRAFIA ERRONKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 335/2020 Erabakia, uztailaren 21ekoa. Onespena ematea aldatzeari Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 16ko 252/2020 Erabakia, zeinaren bidez onetsi baitzen 2020ko ekitaldirako laguntzen deialdia, ikus-entzunezko proiektuak garatzeko eta ekoizteko eta gidoiak idazteko

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 16ko 252/2020 Erabakiaren bidez, onespena eman zitzaion 2020ko ekitaldirako laguntzen deialdiari, ikus-entzunezko proiektuak garatzeko eta ekoizteko eta gidoiak idazteko.

Eskaerak aurkezteko epea ekainaren 27an hasi eta uztailaren egun horretan bertan bukatuko da.

Arabako Foru Aldundiak duela gutxi aurkeztu du "A Plana", zeina baita ekonomia suspertzeko asmo handiko plan bat, eta haren neurrien artean dago laguntza deialdi honentzat beste 50.000 euro bideratzea. Horrek esan nahi du ehuneko 25 gehiago handitu dela haren hasierako aurrekontua.

Hona hemen zer xedatzen duen lehen aipatutako 252/2020 Erabakiak: "Deialdiaren funtzio-namendu egokia bermatzeko, gehieneko zenbateko osoaren ehuneko 30erainoko kopuru gehigarria ezarri da, Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauko 21.2. artikuluan ezarritakoaren arabera". Hortaz, igoera hori aurrekontuan aplikatzeko ez da behar beste deialdi bat egiterik.

Hala ere, komenigarritzat jotzen da ezartzea, hasierako aurreikuspen gisa behintzat, nola banatuko diren 50.000 euro gehigarri horiek lehendik dauden lau laguntza modalitateen artean, baina horrek ez du eragozten banaketa hori gerora aldatu ahal izatea, bat etorritik 252/2020 Erabakiaren hirugarren puntuan xedatutakoarekin.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Lehenengoa. Ikus-entzunezko proiektuak garatzeko eta ekoizteko eta gidoiak idazteko 2020ko ekitaldirako laguntza deialdirako beste 50.000,00 euro bideratzea.

Bigarrena. Hau da gastuaren zenbateko osagarri hori babesten duen aurrekontu partida: Arabako Foru Aldundiaren 2020ko ekitaldirako gastu aurrekontuko "1.15101.0801.7700011 A Plana: kultura eta sorkuntza industriak indartzea" partida, 15-110 lerroa.

Hirugarrena. Deialdiaren 3. artikuluko paragrafo hauek aldatzea (Aurrekontu partidak eta gehieneko zenbateko osoa); honela idatzita geratuko dira:

"Deialdi honen bidez araututako dirulaguntzak aurrekontu partida hauen kontura ordainduko dira:

"20.1.20.1.15101.0801.7700010. Kultura eta sorkuntza industriak" eta 2020rako indarrean dagoen Arabako Foru Aldundiaren aurrekontu antolamenduaren "20.1.20.1.15101.0801.7700011

A Plana: kultura eta sorkuntza industriak indartzea; 110.000,00 eurokoa lehena eta 50.000,00 eurokoa bigarrena, eta 2021erako konpromiso kredituaren "20.3.21.1.15101.0801.7700010 sormenezko kultura industriak"; 90.000,00 eurokoa hurrengo xedapen erreferentziekin 20.1.20.105.1127/000, 20.1.20.105.2550/000 eta 20.3.21.105.26/000.

Kopuru osoa 2. artikuluan ezarritako modalitateen artean banatuko da, honela:

- Zinema eta telebistako proiektuak gauzatzeko laguntzak: 90.000,00 euro.
- Zinemarako film luzeak eta sormen dokumentalak ekoizteko laguntzak: 80.000,00 euro.
- Film laburrak ekoizteko laguntzak: 40.000,00 euro.
- Gidoiak idazteko laguntzak: 40.000,00 euro.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du, eta haren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahalko zaio Foru Gobernu Kontseiluari, bat etorriz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluekin, hilabeteko epean ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahalko da Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bosgarrena. Deialdiaren aldaketa hau ALHAOn argitaratuko da, eta argitaratzen den egunaren hurrengoan jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 21

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lehenengo diputatu nagusiordea era Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren diputatua

MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren zuzendaria

JAVIER HERNANDO GARCÍA